

## **KONTROL MOZIOA**

### **BIZITEGI ERAIKINETAKO LEHENENGO SOLAIRUETAN DIREN JARDUERA EKONOMIKOAK BEHEKO SOLAIRUETARA ALDATZEKO SUSTATU BEHARREKO NEURRIAK**

EH BILDU udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrék, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta **KONTROL MOZIO** hau aurkeztu du, bizitegi eraikinetako lehenengo solairuetan diren jarduera ekonomikoak beheko solairuetara aldatzeko sustatu beharreko neurriei buruzkoa, Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordeak 2026ko urtarrilaren 15ean izandako bileran egindako interpelazioaren ondorioz.

## **JUSTIFIKAZIOA**

2025eko maiatzaren 23an, etxebizitza-politika berri batzuk jarri beharri buruzko ezohiko osoko bilkura egin genuen, EH Bildu udal taldeak eskatuta.

Osoko bilkura berezi hartan eztabaidatu eta bozkatu ziren talde proposatzaileak aurkeztutako 21 proposamen zehatzak.

Onetsitako ekimenen artean, 14. zenbakikoa dago. Honela dioena: *"Donostiako Udaltzaren hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari lehenengo solairuetan eta hurrengoetan dauden jarduera ekonomikoak beheko solairuetara eramane daitezene sustatzea, libre utzitako espazioak bizitegi erabilerara itzul daitezene"*.

Neurri horren bidez, goiko solairuetako bizitegi-higiezinetan diren jarduerak beheko solairuetako lokaletan jartzea sustatu nahi da, bi helburu hauek lortu ahal izateko: bizitegitarako ez diren erabilerak goiko solairuetatik kendu eta bizitegitarako erabiltzea haiek –hartarako eraiki zirene eta–, eta, bestalde, jarduerak beheko solairuetan ezartzen laguntzea, merkataritzarako lokaletan.

Ordutik denbora pixka bat igaro bada ere, orain arte ez da neurririk aurkeztu osoko bilkuran gehiengo onetsitako puntu horren inguruan.

Udal gobernuari horren gainean galdetu eta erantzun zigun zentzuzko gauza zela planteatutakoa, eta udal gobernuarene ados zegoela ildo horretan lan egin behararekin, baina gaiak bazituela koska batzuk, Udalak zer eskumen dituen ikusita. Nolanahi ere, prest agertu zen planteatutako formulak eta/edo beste udalerrri batzuetan jarrita zirenak aztertzeke.

Dena dela, adierazpen horiek egin bai, baina ez zuen inolako konpromisorik zehaztu, ez eta ezartzeko gutxi goiti-beheitiko kronologiarik eman ere.

Hori dela eta, hauxe da gure **KONTROL MOZIOA**:

- 1.- Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak udal gobernuari eskatzen dio azterlan bat egiteko edo eginarazteko, bizitegi eraikinetako lehenengo solairuetatik gora zer jarduera ekonomiko eta zenbat diren jakiteko.
- 2.- Era berean, udal gobernuari eskatzen dio Udalbatzak onartutako erabakiak bete eta aipatutako jarduera horiek kale mailako lokaletara aldatzea bultzatzeko moduko neurri batzuk susta ditzala, bizitegi-erabilera berreskuratzeko modua izateko berriz ere haiek libre utzitako lekuetan.
- 3.- Alde horretatik, udal gobernuari eskatzen dio laguntza-lerro bat jartzeko, bizitegi-eraikinetako solairuetan diren jarduera ekonomikoak beheko solairuetako merkataritza-lokaletara aldatzea sustatzeko, dela hartarako berariaz izango diren laguntzak arautuko dituen ordenantza bat onartuta, dela birgaitzeko laguntzen ordenantza aldatuta, dela hizpide dugun helbururako egokitzat jotzen den beste edozein lerro jarrita.

Donostian, 2026ko urtarrilaren 23an

Ricardo Burutaran Ferré  
**EH BILDU udal taldeko zinegotzia**